

Euskal AEko ingurumen-zergak % 11,3 hazi ziren 2019an

2019an Euskal AEko zerga guztien % 8,2 izan ziren ingurumen-zergak, 2018an baino ehuneko 0,6 puntu gehiago

Euskal AEko ingurumen-zergen zenbatekoa 1.398 milioi eurokoa izan zen 2019an, aurreko urtean baino 142 milioi gehiago (% 11,3), hau da, BPGren % 1,8, Eustatek egindako Ingurumen-zergen Kontuaren arabera.

Ingurumen-zergak honela definitzen ditu Eurostatek: horiek zeinen zerga-oinarria unitate fisiko edo antzekoren bat baita materialen batena zeinek ingurumenean inpaktu kaltegarri, egiaztatu eta espezifikoa baitu; SEC2010-Europar Kontu Sisteman zerga gisa identifikatuak behar dira izan.

Ingurumen-zergak hiru kategoriatan sailkatzen dira: Energia-zergak, Garraio-zergak, Kutsadura- eta baliabide-zergak.

Euskal AEko ingurumen zergak, ingurumen izaeraren arabera (milaka euro). 2015-2019

	2015	2016	2017	2018	2019 (a)	Urteko aldakuntza-tasa %	
						2018/2017	2019(a)/2018
GUZTIRA	1.112.529	1.145.635	1.201.973	1.256.231	1.398.177	4,5	11,3
Energia-zergak	955.663	987.302	1.034.555	1.081.959	1.221.068	4,6	12,9
Garraio-zergak	146.820	148.787	156.948	163.503	166.433	4,2	1,8
Kutsadura- eta baliabide-zergak	10.046	9.546	10.470	10.769	10.676	2,9	-0,9

(a) aurrerapena

Iturria: Eustat. Ingurumen kontuak. Ingurumen-zergen kontuak


Energiaren gainerako zergak erregistratu dute zenbateko handiena: 2019an 1.221 milioi izan dira, guztizkoaren % 87,3. Talde horren barruan, garrantzi handiena duen zerga hidrokarburoen zerga berezia da; 1.054 milioi izan ziren, % 86,3, alegia, eta % 14,4ko igoera izan zuen 2018arekin alderatuta. Igoera hori araudiaren aldaketaren ondorio da, zeinarekin erkidegoko zerga-tasa Estatuko zerga-tasa berezian sartu baitzen, erregaien esparruan merkatu-batasuna bermatzeko. Horren ondorioz, energiaren gainerako zergen guztizkoa % 12,9 igo zen 2018arekin alderatuta.

Bigarrenik, **garraioaren gainerako zergak** guztizkoaren % 11,9 izan ziren, eta 166 milioi eurora iritsi ziren 2019an, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago. Kategoría horretako zerga nagusia trakzio mekanikoko ibilgailuen gainerako zerga da, 2019an 139 milioi eurokoa izan baitzen, hau da, zerga horien % 83,2.

Azkenik, **kutsaduraren eta baliabideen gainerako zergak** gainerako % 0,8a dira, eta urtetik urterako aldakortasun handiagoa dute; 2019an % 0,9 jaitsi ziren aurreko urtearen aldean, eta 11 milioi euroan mantendu ziren.

SEC2010 kontabilitate nazionalaren esparruaren arabera zehaztutako zerga guztiei dagokionez, Ingurumen-zergak Euskal AEko zerga guztien % 8,2 izan ziren 2019an, hau da, 2018an baino ehuneko 0,6 puntu gehiago (% 7,6). Zerga-motaren arabera sailkapenari dagokionez, *Produktuen gaineko zergak*, *BEZik gabe eta inportazioen gaineko zergarik gabe* izenekoan kontzentratzen da ingurumen-izaerako zerga gehien; 2019an, mota horretan kontabilizatutako zergen % 54,4 ingurumen-zergak izan ziren, hau da, 1.201 milioi euro.

Zergen banaketa ehunekotan Euskal AEn (%). 2019 (aurrerapena)




Iturria: Eustat. Ingurumen kontuak. Ingurumen-zergen kontuak

Beste zerga arrunt batzuk atalean, ingurumen-zergak % 43,2 izan ziren, 139 milioi eurora iritsita, eta *Produktzioaren gaineko beste zerga batzuen* barruan, % 8,7 ingurumen-zergak izan ziren, hau da, 59 milioi euro.

BPGri dagokionez, 2019an Euskal AEko ingurumen-zergak % 1,76 izan ziren, EB-27ko % 2,37ko batezbestekoaren azpitik; maila hori Espainia eta Alemaniako % 1,77aren antzekoa da, eta Irlandaren (% 1,41) eta Luxenburgoren (% 1,72) gainetik dago, Eurostatek argitaratutako azken datuen arabera.

Ingurumen-zergak, BPGren ehuneko gisa, herrialdeka. 2019



2019rako ingurumen-zergen banaketa lurraldearen arabera aztertuz gero, Bizkaiak zerga guztien % 50,9 metatzen ditu, Gipuzkoak % 32,6 eta Arabak gainerako % 16,5a.

Euskal AEko ingurumen zergak, lurralde historikoaren arabera (milaka euro). 2016-2019

	2016	2017	2018	2019 (a)	Urteko aldakuntza-tasa %		
					2017/2016	2018/2017	2019(a)/2018
EUSKAL AE	1.145.635	1.201.973	1.256.231	1.398.177	4,9	4,5	11,3
ARABA/ÁLAVA	173.376	188.774	193.726	231.076	8,9	2,6	19,3
BIZKAIA	593.078	617.942	662.638	711.786	4,2	7,2	7,4
GIPUZKOA	379.181	395.257	399.867	455.315	4,2	1,2	13,9

(a) aurrerapena

Iturria: Eustat. Ingurumen kontuak. Ingurumen-zergen kontuak

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62